LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea.

Bermeoko Udalak Alkartasuna Dantza taldeari lagunduko dio 2024 urtean, euskal folklorea sustatzeko.

BIGARRENA.- Programa eta ekimenak.

Urteko egitaraua, Bermeon

- ARATUSTEAK. Kalejira eta Lantzeko inauteriak. Otsailaren 10ean.
- IKASTURTE AMAIERAKO DANTZA KALEJIRA. Martxoaren 8an.
- ARRAIN AZOKA. Kostako dantzak Lameran eta portuan. Maiatzaren 17an.
- DANTZA TALDEKO UME ETA GAZTETXOEN EKITALDIA, Artza frontoian. Ekainaren 8an.
- SAN JUAN BIZPERA, Sabino Arana enparantzan. Ekainaren 23an.
- DANTZA TALDEKO NAGUSIEN EKITALDIA, Lameran. Uztailaren 13an.
- ANDRA MARI EGUNA. Kalejira herritik eta ohorezko aureskua Almikan. Irailaren 8an.
- OLENTZERO EGUNA. Abenduaren 24an.

Aureskuak

- NESTOR BASTERRETXEARI OMENALDIA, aureskua. Maiatzaren 4an.
- ARRAIN AZOKA. Inaugurazioko aureskua eguerdian. Maiatzaren 17an.
- MADALEN EGUNA. Bermeoko Udalaren protokoloa betetzeko, ohorezko aureskua Elantxoben. Uztailaren 22an.

Beste ekimenak

- NAGUSIENTZAKO DANTZA IKASTAROAK. Azarotik martxoaren 8ra arte.
- UMEENTZAKO DANTZA IKASTAROAK. Urritik ekainera arte.

Bermeotik kanpo

- BIZKAIKO DANTZARI EGUNA, Bizkaiko dantzarien biltzarrak antolatuta. Maiatzaren 19an.
- BILBOKO ASTE NAGUSIKO PROGRAMA OFIZIALEAN EKITALDIA, Plaza Berrian.
- BUSTURIALDEKO DANTZARI EGUNA, Busturialdeko dantza taldeek antolatuta. Azaroaren 16an.
- EUSKAL HERRIKO DANTZARI EGUNA. Karrantzan, urrian.

(II. eranskinean jasoko da garatuko den programa zehatza).

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Zio hau bide dela, Bermeoko Udalak hamar mila eta bostehun (10.500 €) ordainduko dizkio



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693

Datea: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Alkartasuna Dantza Taldeari. Diru kopuru hau guztira ordainduko da, 2024. urte barruan, aurrekontuaren 00400-33410-481.01.06 partidaren pentzura, hain zuzen. Ordaintzeko modua honakoa izango da: hitzarmena sinatu eta gero %80a, hau da, 8.400 € eta %20a, hau da, 2.100 €, behar den moduan justifikatu ondoren.

LAUGARRENA.- Dirulaguntzaren ezaugarriak.

Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira. Baten emateak ez dio derrigortasunik eragingo Bermeoko Udalari, eta ez du beste urte batzuetarako eskubiderik ematen ez aurrekaririk ezartzen.

Dirulaguntza ezin izango da gehitu ez berrikusi (ezin da erreklamaziorik egin).

BOSGARRENA.- Alkartasuna Dantza Taldeak bete beharreko baldintzak:

- a) 2024 urteko programa-memorian agertzen diren ekitaldiak burutu.
- b) Bermeoko Udalak beste inoiz dirulaguntzaren bat eman badio, dirulaguntza horren kontra egindako gastuak justifikatuta edukitzea.
- c) Hitzarmena sinatzen den egunerako tokiko zerga zorrak ordainduta daukiela kreditatu beharko dute. Bermeoko Udalak ziurtatuko du puntu hau.
- d) Hitzarmena sinatzen den egunerako, egunean egotea betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzaren.
- e) Jardueratan ezin izango dira ezelako sexuaren ziozko bereizkeria eragin. Zentzu berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso ez izanaren aitorpena aurkeztu beharko da.
- f) Jarduerak irabazteko asmo barik garatzea, hau da, lortzen diren diru-sarrerak, gastuak estaltzeko beharrezkoak baino ez direnak izatea.
- g) Jardueratik sortu litzaken erantzukizunak erantzuteko aseguru egokia edukitzea. Polizaren kopia, hitzarmena sinatu eta gehienezko 10 laneguneko epean aurkeztu beharko da.

SEIGARRENA.- Bermeoko Udalak bete beharreko baldintzak:

- a) Bermeoko Udalak, aitaturako jarduerak antolatzeke beharrezko baimenak izapidetu edota eskuratuko ditu.
- b) Era berean, jarduerak garatzeko ezinbesteko azpiegiturak ipiniko ditu: argindarra, ur hornidura, segurtasuna bermatzeko hesiak eta bestelako baliabideak, etab.
- c) 2024 urteko jarduerak sortzen diren gastuei aurre egiteko 10.500 euroko laguntza emango du.
- d) Jarduerak modu egokian burutzen direla eta hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, Bermeoko Udalak behar besteko ikuskapenak egin ahal izango ditu eta, beharrezkoa den kasuetan, agindu zehatzak eman ahal izango ditu, hitzarmenaren baldintzak bete ditzan. Agindu horiek beteko ez balira, hitzarmena bertan behera uzteko erabakia hartuko du Udalak, beste aldeari entzunaldia eman eta gero.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20241033693
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024		Datea: 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024		Lekua: Bermeon
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11		Erregistro unidadea: Erregistro nagusia



CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

ZAZPIGARRENA.- Diruz lagundu daitezken gastuak, dirulaguntzaren ordainketa eta egin beharrekoak.

Diruz lagundu daitezken gastuen xedea da: elkartrukeak, urteurren ospakizunak, lehiaketak, jaialdiak, nazioarteko egunen ospakizunak, bideo emanaldiak, folklore ekitaldiak, ondarea eta arte plastikoak, jai ekitaldiak, musika saioak, kultura arloko saioak, kirol saioak, umeentzako ekitaldiak.

Diruz lagundu daitezken kontzeptuak hurrengoak dira: federazioen kuotak, beharrezkoak diren kudeaketa gastuak, ekintza bakoitza aurrera eramateko behar duten azpiegitura, apaingarriak eta jai girotzeko beharrezkoak, publizitatea, oroigarriak, sariak (300 € artekoak), garraioak, formazioa, baliabide materialen hornikuntza, giza baliabideak eta bankuetako komisiok.

Diruz lagundutako programarekin lotura zuzena duten catering eta ordezkariak gastuak ere onartuko dira, gehienez ekitaldiaren kostuaren %10ean.

Hitzarmenaren ordainketa egin aurretik, 5. puntuan eskatzen diren baldintzak betetzen direla ziurtatzeko, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a) IFKren kopia eta alkartearen estatutuak aurreko urteetan ez badira aurkeztu.
- b) Alkartasuna Dantza taldearen 2024 urteko txostena. Txostenean lehenengo atalean finkatutako xedearrekin egindako programa edota jardueran deskribapena jasoko da.
- c) 2024 urterako alkarteak dauzkan aurrekontu eta gastuen aurreikuspena, eta bertan agertu beharko da ze neurri ekonomikoarekin lagundu diren ekintzak aurrera eramateko (kuotak, bestelako dirulaguntzak, etab.) eta gastuen jatorria (ekitaldiak, azpiegitura, materialeak, garraio gastuak,...).
- d) Hitzarmena sinatzen den egunean, egunerako egotea betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzaren.

Agiriak udaleko Erregistro Orokorrean, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 16.4. artikuluan jasotako bestelako erak erabiliz. Aurkeztuko dira, 10 laneguneko epean hitzarmena sinatzen den unetik zenbatzen hasita.

ZORTZIGARRENA.- Bestelako sarrera edo dirulaguntzen bateragarritasuna.

Jasotako diru laguntzaz gain lortu daitezken bestelako sarrera publiko zein pribatuekin bateragarriak izango dira, beti ere gain-finantzaketarik ez dagoen bitartean.

Horrela izanda, Alkartasuna Dantza Taldea behartuta egongo da bere finantzaketarako lortzen dituen bestelako sarrera edo dirulaguntzen berri ematera eta, danetara %100etik gorako finantzaketarik lortzen badu, Bermeoko Udalarari horren barri ematen, gain-finantzaketarako kopuruak berreskuratzeko prozedurari hasiera eman dezan.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatzen ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693
Data: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Horrela egingo ez balitz, zigorra ipintzeko arrazoia izango lezake, itzuli beharreko kopuruei lege interesak aplikatzearen kalte barik.

BEDERATZIGARRENA.- Euskerearen erabilerea.

- Herriaren hizkuntza ezaugarriak kontutan edukita, programak eta jarduerak euskeraz garatuko dira.

- Publizitatea eta komunikazio ekintzak euskeraz egingo dira bai ahoz, zein idatziz: argitaratzen diren programa, iragarki, ohar, kartel eta gainontzekoak euskeraz egingo dira. Euskera ez den beste hizkuntzaren bat erabiltzekotan publizitate eta komunikazio ekintzetan, lehentasun osoa edukiko da euskereak (3-1).

- Euskeraren kalitatea bermatu beharko da aitaturako ahozko eta idatzizko ekintza guztietan, eta udaleko Euskera Sailaren laguntzea izango du Alkartasuna Dantza Taldeak hizkuntza aholkularitza eta laguntza behar duenean.

HAMARGARRENA.- Debekatutako jarduera sexistak.

- Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzeneko zein zeharkakoa, edozein delarik ere horretarako erabilitako era.

- Ezin izango da adierazi, pertsonen, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago daukatela, ez eta objektu sexual soilak direla ere. Orobat, ezingo zaie zabalkundea eman emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duten edukiei.

HAMAIKAGARRENA.- Alkartasuna Dantza Taldearen betebeharrak:

1. Hitzarmen honetan jasotakoa betetea.
2. Hitzarmen honen xedea diran ekitaldietako publizitatean, Bermeoko Udalaren logoarekin agertzea.
3. Bermeoko Udalari lankidetzaren kontrola egiten iztea.

HAMABIGARRENA.- Jasotako diruaren justifikazioa.

Dirulaguntza kobratu ahal izateko, dirulaguntza justifikatu beharko da. Horretarako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1.- Txosten-memoria bat, non agertzen diren egindako jarduerak eta jasotako emaitzak, ezarritako adierazlearen arabera: parte-hartzailearen kopurua eta balorazioa, elkarte onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta.

2.- Jardueren sarrera eta gastuen balantze ekonomikoa, eta bertan agertu beharko da



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693
Data: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

ze neurri ekonomikoarekin lagundu nahi diren ekintzak aurrera eramateko eta gastuen jatorria. Udalak emandako dirulaguntza agertuko da, eta bestelako diru-sarrerak.

Balantze honekin batera ordaindutako faktura originalak aurkeztuko dira.

Fakturek, azaroaren 3ko 1619/2012 Errege Dekretuak arautzen dituen fakturazioko betebeharrak bete behar dituzte:

* Fakturretan enpresaren izena, IFK edo IFZ, faktura zenbakia, data, kontzeptua, zenbatekoa, BEZa eta eskatzailearen datu fiskalak azaldu beharko dira.

* Fakturak ordainduta daudela egiaztatu beharko da. Horretarako, faktura bakoitzaren ordainagiria aurkeztu beharko da, bankuko transferentzia bidez edo esku dirutan ordaintzen dena, fakturretan "ordainduta" hitzarekin. Tiketak, faktura sinplifikatu moduan onartuko dira.

Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, horreek ez badute balio dirulaguntzaren helburuak lortzeko.

Emandako diru guztia gastatu ez bada, justifikazioa eginda, itzuli egin beharko da, baita neurgarriak ez betetzeagatik zehazten direnak ere, Dirulaguntza Lege Orokorrean 36. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Onuradunak jaso duen laguntza osorik edo zati batean itzuli ahal du borondatez, horixe egiteko eskatu aurretik. Eskaera ebatzi egingo da eta, gero, Alkartasuna Dantza taldeari jakinaraziko zaio, ordainketa egiteko epea eta modua. Hori guztia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikulua betetuz.

Dokumentazioaren aurkezpena egiterakoan ez bada aurreko puntuetan eskatutakoa zehatz betetzen, interesdunak 10 eguneko epea izango du akatsak zuzentzeko. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten zaiola ulertuko da.

Agiri hauek ez aurkeztea dirulaguntza ukatzeko eta ordaindutako lehenengo zatia itzultzeko zioa izango da.

HAMAHIRUGARRENA.- Hitzarmenaren jarraipenerako Batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzorde bat eratuko da, zeinetan erakunde bakoitzeko bi ordezkari hartuko duten parte. Bermeoko Udalaren aldetik, Nadia Nemeš Shomaly andreak eta Susana Regidor Lardies andreak hartuko dute parte eta Alkartasuna Dantza taldea elkartetik, Gaizka San Pedro Altonaga jauna eta Miren Aizpuru Bilbao andrea.

Batzordea urtean behin batzartuko da gutxienez.

HAMALAU GARRENA.- Hitzarmena ez betetzearen ondorioak.

Alkartasuna Dantza Taldeak hitzarmen honetan jasotakoak ez betetzeak, dirulaguntza murrizteko edo kentzeko arrazoia izango da, Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen 37. artikularekin bat eta, horretarako, lege bereko 42.a artikulua xedatzen dituen prozedura jarraituko da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693
Data: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

HAMABOSGARRENA.- Udalaren betekizunak, diru publikoaren erabilerari dagokionez.

Bermeoko Udalak, bere aldetik, eta Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen aginduari jarraituta, honako eginkizunak beteko ditu:

- Emandako dirulaguntzaren kontrol egokiak egin, dirulaguntza oinarritzen duten helburua eta egintzak benetan burutu direla ikusi ahal izateko.
- Lege berari jarraituta, dirulaguntzaren oinarriak bete ez direla ikusten bada edota ez dirala era egokian justifikatu ikusi ezker, desbideratutako diru publikoa berreskuratzeko, egokiak diren prozedura eta espedienteak izapidetuko ditu, hamargarren atalean adierazitakoarekin bat.

HAMASEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen honek 2024. urtean edukiko du eragina, hitzarmen honi egotziko zaizkio dirulaguntzaren izaerarekin bat datozen gastuak nahiz eta formalizatu aurretik egindakoak izan (urtarrilaren 1etik aurrera urte honen barruan) behar bezala justifikatuta badaude.

Aurreko atalean aitatutako ondorioak 2024. urtea amaituta izapidetu edota aplikatzearen kalte barik, beti ere preskripzio epearen barruan.

HAMAZAZPIGARRENA.- Arau-hauste legez hartuko dira jokabide hauek:


- 1.- Bosgarren ataletik hamargarren atalera jasotako betebeharrak ez betetzea.
- 2.- Jasotako dirulaguntza ez justifikatzea horretarako emandako epean.
- 3.- Eskuratutako bestelako sarreraren berri ez emotea, berdin publikoak zein pribatuak izan.
- 4.- Gain-finantzaketarik balego, horren berri ez ematea edota itzuli beharreko kopuruak ez itzultzea.

Lehenengo atalean jasotako arau-hausteen kasuan, onartutako dirulaguntza murriztea ekarriko du zigor moduan, egindako ez betetzeen garrantziaren arabera kalkulatu dena, ez bada ez betetzeen larritasunagatik dirulaguntza osorik itzultzea erabakitzen dela.

Beste hiru ataletan aurreikusitako arau-hausteen kasuan, dirulaguntza osorik itzultzea ekarriko du zigor moduan, eta hurrengo urteetan dirulaguntza berriak eskuratzeko ezintasuna suposatuko du.

Zigor horreek ipintzeko, hitzarmen honen hamargarren artikuluan adierazten den legez, 38/2003 legeak aurreikusitako prozedura jarraituko da eta, erabakia hartu orduko, interesdunari entzunaldia ematen zaiola bermatuko da.

HAMAZORTZIGARRENA.- Borondatezko pertsonala.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693
Data: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- Jardueretan laguntzeko langile boluntarioak edukiz gero, Alkartasuna Dantza Taldea izango da erantzule hirugarrenen aurka, ekintza edo omisioagatik eragindako kalteetan.

- Erantzukizun hori aplikagarria den araudiaren arabera arautuko da.

HEMERETZIGARRENA.- Aitorpen eta eskertasuna.

Alde biek elkarlana eta lankidetzeta aitortu eta eskertasuna agertzeko konpromisoa hartzen dute, elkarrekin egiten dituzten ekimen eta programetan eta idazten dituzten agirietan. Hori horrela, alde bien parte hartzea espresuki agertuko dute, eta erakunde bien logo edo ikurrak agertuko dira.

HOGEGARRENA.- Legedi aplikagarria.

Hitzarmen honeri honako legedia aplikatuko zaio:

1. Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legea.
2. Dirulaguntzen Legearen Erregelamendua onartzen dituen 887/2006 Errege Dekretua.
3. Zuzenbide administratiboko arau orokorrak.
4. Zuzenbide pribatuko arau orokorrak.

Hori horrela, hitzarmenean aurreikusten ez den guztirako, edozein zalantza argitu eta hitzarmena interpretatzeko, aitaturako legediak aurreikusitakoa jarraituko da zehatz.

HOGETA BATGARRENA.- Hitzarmenaren izaera administratiboa.

Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Ondorioz, honen aplikazio edo interpretazioan hartzen diren erabakiak bide administratiboari amaiera emango die eta zuzenean aplikagarriak izango dira, Administrazioarekiko Auzibidean errekurritzeko eskubidearen kalte barik.

HOGETA BIGARRENA.- Hitzarmena argitaratzea.

Hitzarmen hau eta emakidarako erabakia dirulaguntzen base nazionalean argitaratuko dira, sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatutako Dirulaguntzen Lege Orokorraren 20. artikulua betez.

Hori horrela, hitzarmenaren aurreikusten ez den guztirako, edozein zalantza argitu eta hitzarmena interpretatzeko, aitaturako legediak aurreikusitakoa jarraituko da zehatza.

Eta horrela agertu dadin, honako hau ematen dutenek, agiri hau onartu eta sinatzen dute, dagozkion ondorioetarako.

Nadia NemeH Shomaly
Alkatea

Gaizka San Pedro Altonaga
Alkartasuna Dantza Taldeko Presidentea

Jurdana Uriarte Lejarraga
Idazkaria



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693
Data: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Endika Etxebarria batzar gelara sartu da.

Alkateak hurrengo urteei begira diru-laguntzetan berdintasun irizpideak sartzea proposatu du.

12.- FUTBOL TALDEAREKIN 2024. URTEKO HITZARMENA SINATZEA ETA GASTUA ONARTZEA.

Xedea

Futbol taldearekin 2024. urteko hitzarmena sinatzea eta dagokion gastua onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren 2024. urterako Aurrekontuetan, Futbol Taldearen aldeko dirulaguntza nominatiboa jasotzen dau.

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28. artikularen arabera, dirulaguntza biderateko hitzarmena sinatu behar da.

Hirugarrena: Hitzarmenaren helburua, futbol jarduerak bultzatu eta babestea da Bermeoko udalerriko identitateagaz oso modu estuan lotuta dagoen kirola dalako.

Laugarrena: 2024ko apirilaren 16an, Kirol Saileko zuzendari andreak justifikatze memoria emon dau.

Bosgarrena: 2024ko apirilaren 21ean, Idazkaritzako Administrazio Orokorreko teknikariak txostena egin dau.

Seigarrena: 2024ko maiatzaren 20an, Kontuhartzaileak aldeko fiskalizazio txostena egin dau.

Zazpigarrena: 2024ko maiatzaren 21ean Kirol Saileko zuzendariak erabaki proposamena egin dau.

Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak 2024ko aurrekontuetan Futbol Taldearen aldeko dirulaguntza nominatiboa jaso dau eta elkarte honegaz hitzarmena egiteko



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693
Datea: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

proposamena.

Bigarrena: finantzatuko diren gastuak formazioa, baliabide materialen hornikuntza eta giza baliabideak, federazioen kuotak, beharrezkoak diren kudeaketa gastuak, garraioak, elkarteko ohiko ekintzak, futbolaren difusioa eta sustapena egiteko jarduerak eta programak.

Hirugarrena: Gastuak beharrezko atxikipena dauka RC 2024/336.

Laugarrena: Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen dau bere 5. artikulua, Toki Errejimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28.1. artikulua, Sektore Publikoko Kontratuak 9/2017 Legeak bere 6. artikulua eta Sektore Publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak hartu dira kontutan.

Bosgarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. artikulua f) eta s) ataletan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bermeoko Futbol Taldeagaz 2024. urteko hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Aurrekontuko 01600-34100-481.01.24 partida ekonomikoaren pentzura, Bermeoko Futbol Taldeari 28.000 €-ko gastua onartzea eta esleitzea (AD), hitzarmenean agertzen den programako gastuentzat

HIRUGARRENA: Ordaintzeko modua honakoa izango da: hitzarmena sinatu ondoren, zenbatekoaren %75a, hau da, 21.000 € (O) eta %25a, hau da, 7.000 €, dirulaguntza behar den moduan justifikatu ondoren.

LAUGARRENA: Euskeraren ordenantzak xedatzen dituen kultura, kirol, aisialdi elkarte, musika talde eta bestelakoei dirulaguntzak emateko baldintzak bete behar ditu



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuta ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693
Data: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

dirulaguntzaren jasotzaileak.

BOSGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

SEIGARRENA: Erabaki honen barri Idazkaritzari, Ekonomia, Kontabilitateari eta Diruzaintzari jakinaraztea.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honen publizitatea Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen argitaratzeko agindua emotea Kirol Sailari.

ZORTZIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024
17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693

Datea: 28/05/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1



BERMEOKO FUTBOL TALDEAGAZ LANKIDETZA HITZARMENA

JURDANA URIARTE LEJARRAGA andreak, Bermeoko Udaleko idazkarinagusiak, fede ematen du

BATU DIRA

ALDE BATETIK: NADIA NEMEH SHOMALY And., (NAN: 72311504X), Bermeoko Udaleko alkate-udalburua

BESTE ALDETIK: ANDER GOIENETXEA BEITIA Jn., (NAN: 72101-M), Futbol taldeko presidentea

PARTE HARTZEN DABE

NADIA NEMEH SHOMALY And. Bermeoko Udalaren ordeaz eta izenean, 2024ko maiatzaren 28ko Tokiko Gobernu Batzarrean erabakitakoari jarraiki eta Toki Erregimeneko Oinarrien Legearen 21.1. b) eta r) artikuluek emondakoahalmenaren arabera, eta

Beste aldetik,

ANDER GOIENETXEA BEITIA jaunak, FUTBOL TALDEaren ordeaz eta izenean, Alkarteak emoten deitsozan ahalmenen arabera. I eranskinean (Zuzendaritza Batzordearen akta jaso)

ADIERAZTEN DABE

Bermeoko Udalaren ahalmenen artean dagoela kirola eta kirol-jarduerak antolatu eta sustatu, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak antolatzea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.19) artikulua bat.

Hori horrela, udalaren asmoa dala futbol jarduerak bultzatzea eta babestea.

Horretarako, Bermeoko Udalak aurreko urteetako joereagaz jarraitzeko eta bermatzeko herri mailako kirol ekintzak antolatzea, biztanleriaren partaidetza zabala bilatzeko helburuagaz hain zuzen be, talde baten beharra dauka eta Futbol taldeak kirol jarduera horreek antolatzeko giza baliabide nahikoa dauka. Herrian futbol talde bakarra egonda, Udalak taldea lagundu nahi dau, kirol ekintza osagarriak eta berdintasunean oinarrituta antolatu daizan.

Hori horrela, alderdi bien lankidetzeara arautzea da hitzarmen honen helburua.

ERABAKITZEN DABE

LEHENENGOA: Bermeoko FUTBOL TALDEak 2023ko abuztutik 2024ko uztailean doan denboraldian ondorengo kirol jarduerak antolatzea:

- Urte osoan, futbol harrobiaren etorkizuna bermatzeko dauzan jarduerak eta jagokozan ekimenak antolatu eta kudeatuko dauz, Bermeoko neskek zein mutilek,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatzen ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693
Data: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

ume zein gazteek parte hartzeko aukerea berdina izandaiei.

Helburua betetzen jarraitu ahal izateko, diruz lagunduko dana da 2023ko abuztutik 2024ko uztaiera epearen barruan gauzatzen diren jarduerak.

BIGARRENA: Futbol taldeak honako baldintza honeek beteko dauz:

- Egoitza Bermeon eukiko dau eta Bermeoko futbola bultzatuko dau.
- Irabazteko asmo bakoa izatea.
- Bermeoko Udalak beste inoiz diru-laguntzaren bat emon badeutso, diru-laguntza horren kontra egindako gastuak justifikatuta eukitea.
- Hitzarmena sinatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordaindurik daukiezala kreditatu beharko dabe. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.
- Identifikazio fiskaleko kodea eukitea eta egunean egotea betebeharr fiskaletan eta Gizarte Segurantzian.
- Bermeoko neskek zein mutilek, ume zein gazteek kirol honetan parte hartzeko aukera izan daie ahalegina egingo dau.
- Ezin izango da inolako diru- laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako.
- Futbol taldeak aurrekontuaren %50etik gorako autofinantzaketa izan beharko dau.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso ez izanaren aitortpena.

Hitzarmena sinatu aurretik hurrengo baldintzak justifikatu beharko dauz: e (bigarren zatia),f, g, h eta i, hain zuzen be. Aipatzen diren aurreko baldintzak jada justifikatuta daude edota Udalak justifikatu behar ditu: a, b, c, d eta e (IFK eukitea).

Bermeoko Udalaren alkatearen izenean esandako baldintzak beteten dirala ziurtatzen dauen zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da, Futbol Taldeko presidentek sinatuta, udaleko, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 16.4. artikuluan jasotako bestelako erak erabiliz.

HIRUGARRENA: Hitzarmenaren lehen ordainketea egin aurretik, udal dirulaguntza eskaera orria normalizatua behar dan moduan osatuta (1.1 eta 1.2 eranskinak) aurkeztu beharko da, eta taldean parte hartzen duten jokalarien kopuruak, asteko entreno orduak, zenbat talde, zein mailatan, eskolarmailako fitxak, federatu mailako fitxak,e.a. dagokion inprimakia beteta (3.1 eranskina)

Diru-laguntzearen bigarren zatia kobratu ahal izateko, agiri honek aurkeztu beharko dira:

- Jarduera txostena edo memoria (2.3 eranskina):** Esandako denboraldian eginiko jardueren txostena, bertan deskribatu beharko dira egindako jarduerak, zabalkunderako hartutako neurriak, hitzarmenean jasotzen diren beste baldintza batzuk, jarritako helburuak eta eskuratutako emaitzak eta helburuen lorpen maila. Proiektuaren garapenean egindako aldaketak, hala bada. Txostenaren gehienezko luzerea 4 orrikoa izango da. Atal honetan zehaztu beharko da euskerearen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693
Data: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

- erabilera kirol jardueretan (entrenamenduak, publizitatea...)
- b) **Kontu garbiketaren aitortzea (2.2 eranskina) eta Diru-sarreraren eta gastuen zerranda (2.1 eranskina).** Puntu honek batera fakturak erantsiko dira, dagokion ordainketa ordainagiriarekin.

Dokumentazioaren aurkezpena egiterakoan ez bada aurreko puntuetan eskatutakoa formalizatzen, interesdunak **10 eguneko epea izango dau akatsak zuzentzeko**. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten deusola ulertuko da.

Agiri honek ez aurkeztea diru-laguntzea ukatzeko eta ordaindutako lehenengo zatia itzultzeko zioa izango da.

Lehenengo zatia itzuli behar izatekotan, lege interesak gehituta itzulibeharko da

LAUGARRENA: Bere aldetik, eta zio hau bide dala, Bermeoko Udalak HOGEI ETA ZORTZI MILA EURO (28.000 €) ordainduko deutsoz FUTBOL TALDEari. Diru kopuru hau zatika ordainduko da, 2024. urte barruan. Ordaintzeko modua honakoa izango da: hitzartutako kopuru osoaren % 75a, hau da, 21.000 €, hitzarmena sinatu eta lehen zatia kobratzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztu eta gero, eta gainontzekoa, 7.000 €, dagokion justifikazioa egin ondoren.

Diru-laguntzaren aurrerapena bermatzeko ez da beharrezkoa izango bermea ipintea, talde horren ibilbidea ikusirik. Ez da aurreikusten jasotako laguntza bere helburura ez bideratzea edota bestelako ezertan xahutzea

Dirulaguntza honeri aurre egiteko Aurrekontuaren izendun partida honakoa da: 01600 34100 4810124.

BOSGARRENA: Diru-laguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira. Baten emoteak ez deutso derrigortasunik eragingo Bermeoko Udalari, eta ez dau beste urte batzuetarako eskubiderik emoten ez aurrekaririk ezarten.

Diruz laguntzeko gastuak izango dira zalantzarik gabe beharrezkoak direnak hitzarmen honetan araututako diru-laguntza betetzeko


Diru-laguntza ezin izango da gehitu ez berrikusi (ezin da erreklamaziorik egin).

Jasotako diru laguntza lortu daitezkezan bestelako sarrera publiko zein pribatuekin bateragarriak izango dira, betiere gain-finantzaketarik ez dagoen bitartean.

Horrela izanda Bermeoko Futbol taldea behartuta egongo da bere finantzaketarako lortzen dauzen bestelako sarrera eta diru laguntzen barri emotera eta, danatara %100etik gorako finantzaketarik lortzen badau, Bermeoko Udalari horren barri emoten, gain-finantzaketarako kopuruak berreskuratzeko prozedurari hasiera emoteko.

Horrela egingo ez balitz, zigorra ipintzeko arrazoia izango litzake, itzulibeharreko kopuruari lege interesak aplikatzearen kalte barik

SEIGARRENA: Futbol taldearen betebeharrak:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udalari)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693
Data: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

1. Hitzarmen honetan jasotakoa betetea.
2. Programearen ardura bere egitea.
3. Futbol taldearen ekintzen publizidadean, Bermeoko Udalaren logoagazagertzea.
4. Bermeoko Udalari lankidetzaren honen kontrola egiten iztea.
5. Aurretik emondako diru-laguntza guztiak justifikatuta eukitea.

ZAZPIGARRENA: Udalaren betekizunak, diru publikoaren erabilerari jagokonez.

Bermeoko Udalak, bere aldetik, eta Diru laguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legearen aginduei jarraiki, honako eginkizunak beteko dauz:

- Emondako diru laguntzearen kontrolak egin, diru laguntza oinarritzen dauzen helburua eta egintzak benetan egin dirala egiaztatuz ahal izateko.
- Lege berari jarraiki, diru laguntzearen oinarriak ez dirala bete ikusten bada, edota ez dirala era egokian justifikatu ikusi ezker, desbideratutako diru publikoa berreskuratzeko, udalak jagokozan prozedura eta espedienteak izapidetuko dauz.
- Era berean, hitzarmen honetan jasotako baldintzak zehatz betetzen ez dirala ikusi ezker, emondako diru laguntza berreskuratzeko, udalak jagokozan prozedura eta espedienteak izapidetuko dauz.
- Eta bardin jokatu dau udalak, emondako kopuruak hitzarmen honetan jasotako helburuak betetzera bideratu beharrean bestelakoetara bideratu dirala egiaztatuko balitz.

ZORTZIGARRENA: Euskerearen erabilera

- Prestakuntzea euskeraz hartzeko aukerea dagoan kasuetan, prestakuntzea euskeraz eginda daukien entrenatzaileak hobetsiko dira.

- Entrenamentuetan eta futbol partidetan euskerea erabilteko ahalegin berezia egingo da. Euskerea erabilten dan taldeetan euskereari eutsi egingo jako, entrenatzaileek euskeraz egiteko hizkuntza jokaerea izango dabe eta entrenamentu guztietako hizkuntza euskerea izan daiten lanean jarraituko dau Bermeoko Futbol Taldeak, datorren denporaldian be. Horretarako, euskerea erabilteko planifikazioa egingo dau eta entrenatzaileen hizkuntza prestakuntza areagotzen joango da.

- Bermeoko Futbol taldeak egingo dauzan ekintza eta jardura guztietan bermatuko da euskerearen erabilera bai ahoz, zein idatziz: harrobiaren etorkizuna bermatzeko jardueretan, eskola kirola bultzatzeko ekintzetan..., eta arreta berezia eskainiko jake gazteak edo gazteei zuzenduta egiten diran jardura edo ekintzei.

- Publizitatea eta komunikazio ekintzak euskeraz egingo dira bai ahoz, zein idatziz: kanpainak, argitaratzen diran programa, idatzi, iragarki, ohar, kartel, argazki, kamiseta eta gainontzekoak euskeraz egingo dira; futbol zelaiko publizitatea euskeraz egingo da; prentsaurrekoak euskeraz egingo dira. Euskerea ez dan beste hizkuntzaren bat erabiltzekotan, lehenetsun osoa emongo jako euskereari (3-1).

- Hitzaldiak, jaialdiak, lehiaketak... euskeraz izango dira. Hitzaldietan, hizlariak euskaldunak izango dira. Kasuren batean, hizlaria euskalduna ez balitz, aurkezpen osoa euskeraz egingo da eta galdera erantzunetarako, itzultzaile lana egingo dauen pertsonaren bat egongo da euskeraz egiten diran galderak hizlariari azaltzeko.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuz ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693
Data: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



- Ekintza konkretuetan, bozgorailu bidez mezurik emon behar izatekotan, euskeraz emongo dira horreek mezuak.

- Gabonetan eta udaldian futbol taldeak herriko umeentzat antolatzen dauzan campusetako hizkuntzea euskerea izango da.

- Ekitaldi publikorik egitekotan, euskeraz egingo dira horreek ekitaldiak.

- Bermeoko Futbol taldeak udalari eta herritarrei aurrez-aurreko hartu- emon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz bideratuko deutsez. Bestalde federazino, epaile eta abarregaz be hartu-emonakeuskeraz izateko ahalegina egingo dau.

- Kalidadeko euskerea bermatuko da ekintza guztietan, eta udaleko Euskera Sailaren laguntzea izango dau futbol taldeak hizkuntza aholkularitza eta laguntza behar dauenean. Lana euskeraz egitea errazteko, besteak beste honako baliabideak eskainiko deutsoz: zuzendaritza taldearen lana errazteko, akta ereduak ipiniko deutsoz euren esku eta web gunea euskeraz txukun idatzita egon daiten laguntza eskainiko deutso.

- Denporaldi amaieran hizkuntza erispideen inguruko balorazinoa egingo da eta datorren urteko helburuak ezarriko dira.

- Udalak eta futbol taldeak agerraldi publikoa egingo dabe, futbol taldeak eta entrenatzaileek egindako lana publikoki aitortzeko eta futbol taldearen konpromisoak zeintzuk diran zabaltzeko.

BEDERATZIGARRENA: Debekatutako jarduera sexistak.

- Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzeneko zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.

- Ezin izango da adierazi, pertsonak, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela, ez eta objektu sexual soilak direla ere. Orobat, ezingo zaie zabalkundea eman emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duten edukiei.

- Eskabidea aurkezten duen pertsonak eta erakunde eskatzaileak ez izatea administrazio — zehapenik edo zehapen penalik sexu — diskriminazioa egiteagatik; eta bestetik emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen itzalpean debekurik ezarrita ez izatea.

HAMARGARRENA: Jasotako diruaren justifikazinoa.

Futbol taldeak 2023ko abuztutik 2024ko uztailera doan denboraldian jasotakodiruen justifikazinoa egin beharko dau, honeek dokumentuak ekarrita:

- Gastuen eta sarreraren balantzea, gastuen ganeko faktura originalak (fakturazioko betebeharrak bete behar dituzte azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak arautzen duen arabera) edo fotokopia konpultsatuak aurkeztubehar dira.

- Egiatzena egin eta gero, originalak itzuli egingo dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, horreek ez badabe balio diru-laguntzearen helburuak lortzeko (



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2024 17:35:11

DOCUMENTO: 20241033693
Data: 28/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unida: Erregistro nagusia



CSV: 07E8000FC5DD00X9T6E7C1R5M1

Taldeak bete beharreko udaleko dirulaguntza eskaria inprimakian jasotzen dira diruz lagundu daitezkean kontzeptuak eta ezin direnak 1.1. inprimakia).

- Diru-laguntzea ezin izango da erabili kirolariei ordaintzeko, primetarako, oparietarako, protokoloko ekintzetarako eta bazkarietarako.

- Emondako diru guztia gastatu ez bada, justifikazinoa eginda, itzuli egin beharko da.

Agiri guzti horiek, 2025.urteko urtarrilako hilabeteko epe barruan aurkeztuko dira, diru-laguntza emondako helburura bideratu dala egiaztatu eta gain-finantziaketa ete dagoan aztertu ahal izateko.

HAMAIKAGARRENA: Hitzarmena ez betetzearen ondorioak.

Futbol Taldeak hitzarmen honetan jasotakoak ez betetzeak, dirulaguntza murrizteko edo kentzeko arrazoia izango da, Dirulaguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legearen 37. Artikuluagaz bat eta, horretarako, lege bereko 42.a artikulua xedatzen duan prozedura jarraituko da.

HAMABIGARRENA: Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen honek 2024. urtean eukiko dau eragina, zazpigarren atalean aitatutako ondorioak 2024. urtea amaituta izapidetu edota aplikatzearen kalte barik.

HAMAHIRUGARRENA: Arau-hauste legez hartuko dira jokabide honeek:

- 1.- Hitzarmen honetan jasotako betebeharrak ez betetzea.
- 2.- Jasotako dirulaguntza ez justifikatzea horretarako emondako epean.
- 3.- Eskuratutako bestelako sarreraren barri ez emotea, bardin publikoak zein pribatuak izan.
- 4.- Gain-finantzetarik balego, horren barri ez emotea edota itzuli beharrekopuruak ez itzultzea.
- 5.-Dirulaguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legean aurreikusitakoak (hauetan,kasuz kau izango da zati batean edo osorik itzultzea)

Lehenengo atalean jasotako arau-hausteen kasuan, onartutako dirulaguntza murriztea ekarriko dau zigor moduan, egindako ez betetzeen garrantziaren arabera kalkulatu dana, ez bada ez betetzeen larritasunagaitik dirulaguntza osorik itzultzea erabagitzen dala.

